

Gurasoak agur,

Mezu honen bitartez, ikastolako oharrak bidaltzen dizkizuegu, ondoko arloen arabera sailkatuta:

- OHAR OROKORRAK (OO)
- HH OHARRAK (HH)
- LH OHARRAK (LH)
- DBH OHARRAK (DBH)

#### OHAR OROKORRAK (OO)

##### OO. MATRIKULAZIOA

Hurrengo matrikulazio kanpaina planifikatzen hasi beharra dugu. Hori dela eta, dagozkigun aurreikuspenak egin ditzagun, eskertuko genizueke ikastolan **hasi ez den haurrik** baldin baduzue [galdetegi hau](#) beteko bazenute abenduaren 13a baino lehen.

##### OO. LOTERIA

Aurtengoan ere Gabonetako Loteria salmenta martxan jarri du Ikastolak. Txartel bakoitzak 5 Euro balio ditu (4 jokatu eta + 1 Ikastolarentzat). Txartelak astelehenetik aurrera Ikastolako Idazkaritzan jarriko dira salgai eta bertara gerturatu beharko da, txartelak eskuratzeko.

Loteria erosteko **azken eguna, 2019ko abenduaren 13a** izango da.

**ZENBAKIA: 72880**

##### OO. "TANTA" EGITASMOA

Ikastolen aldeko TANTA ekimena aurkeztu du Ikastolen Elkarteak. Euskal Herriko berezko hezkuntza proiektuaren aldeko elkartasun adierazpena da TANTA, herritarrek Euskal Herriko ikastolen proiektuaren alde ekarpena eginez egikarrituko dena. TANTA ekimenean txartel batzuk jarriko dira herritarren esku. Herritarrek bost euroko ekarpena egingo diote Euskal Herriko ikastolen proiektuari, TANTA txartel bakoitzeko. "Ekarpen horri esker, ikastolok gure proiektua aurrera ateratzeko bultzada ekonomikoa jasoko dugu", azaldu dute. [Informazio gehiago.](#)

##### OO. ELKARTASUN IKASTOLAK

Ikastolen arteko elkartasun tresna den **Elkartasun Ikastolak europar kooperatibaren** Batzar Nagusiak 840.000 euroko laguntzak banatzea onartu du eskaera egin dioten hamar ikastolaren artean. Ikus honako [Bideoa](#) (3:17). [Informazio gehiago.](#)

##### OO. EUSKARAREN EGUNA

Datorren asteartean, abenduak 3, EUSKARAREN EGUNA ospatuko dugu. Beraz, ikasleak EUSKARAZ BIZI kamisetarekin etor daitezen ikastolara gonbidatzen zaituztegu.

##### OO. KOSTA KASTA

Pasa den asteazkenean KOSTA KASTA saioa egin zuten DBH 4ko ikasleek Arraio Irratian. Zuzenean entzuterik izan ez zenutenok <http://www.arraio.eus/> webgunean entzun ahal izango duzue.

#### HH OHARRAK (HH 2 - LH2)

##### HH 5. "TXAKUR TERAPIA"

HH 5eko talde bat EGUNEKO ZENTROAN izan da, bertako helduekin "Txakur terapia"n parte hartzen. Goiz goxoa eta aldi berean dibertigarria pasa dugu aiton-amonekin eta Bixkor, Negu eta Feel txakurrekin. [Hemen dituzue argazki batzuk.](#)

##### HH 3 – LH 2. MAKETA ERAKUSKETA

Kanpo espazioaren eraldaketaren lanketarekin jarraitzen dugu gurean. Aste osoan zehar, haurrek amesten duten kanpo espazioa irudikatzen duten maketak izan ditugu erakusgai. Adi, gaur duzue azken eguna bisitarako eta! [Hemen dituzue argazki batzuk.](#)

Besterik gabe, jaso gure agurrik beroena.

ZUZENDARITZA

Estimadas familias,

Mediante el presente correo, les hacemos llegar las notificaciones referentes a actividades o información significativa, clasificadas en función de las siguientes áreas:

- **OHAR OROKORRAK / NOTIFICACIONES GENERALES (OO)**
- **HAUR HEZKUNTZA / E. INFANTIL (HH)**
- **LEHEN HEZKUNTZA / E. PRIMARIA (LH)**
- **DBH OHARRAK / E. SECUNDARIA (DBH)**

### **OHAR OROKORRAK / NOTIFICACIONES GENERALES (OO)**

#### **OO. MATRICULACIÓN**

Debemos de comenzar a planificar la próxima campaña de matriculación. Por ello y para poder realizar las previsiones necesarias os agradeceríamos que en caso de tener **algún hijo o hija que todavía no ha empezado en la Ikastola**, rellenarais [este formulario](#) antes del 13 de diciembre.

#### **OO. LOTERIA**

Este año se ha puesto en marcha la venta de la Lotería de Navidad. Cada participación cuesta 5 euros (se juegan 4 euros y 1 euro será de ayuda a la Ikastola). Las participaciones se pondrán a la venta únicamente en Secretaría. El último día para adquirir lotería será el lunes, 13 de diciembre de 2019.

**NÚMERO: 72880**

#### **OO. PROYECTO "TANTA"**

Ikastolen Elkartea ha presentado la iniciativa TANTA a favor de las ikastolas. TANTA es una muestra de solidaridad con el proyecto educativo propio de Euskal Herria, que se materializará con la aportación de la ciudadanía a favor del proyecto de las ikastolas de Euskal Herria. En la iniciativa TANTA se pondrán a disposición de la ciudadanía unas tarjetas. La ciudadanía aportará cinco euros al proyecto de las ikastolas de Euskal Herria por cada tarjeta TANTA. "Gracias a esta aportación, las ikastolas vamos a recibir un impulso económico importante para sacar adelante nuestro proyecto", explican. [Aquí tenéis más información.](#)

#### **OO. ELKARTASUN IKASTOLAK**

La Junta general de Elkartasun Ikastolak europar Kooperatiba ha decidido repartir 840.000 euros en ayudas a 10 ikastolas. Ver el siguiente [Video](#). Más [Información](#).

#### **OO. DÍA DEL EUSKARA**

El próximo martes, 3 de diciembre, celebraremos el día del euskera. Por lo tanto, invitamos a que el alumnado venga a la ikastola con la camiseta de EUSKARAZ BIZI.

#### **OO. KOSTA KASTA**

El pasado miércoles los alumnos y alumnas de 4º de ESO realizaron una sesión de KOSTA KASTA en Arraio Irratia. Los que no pudieron escucharlo en directo lo podrán hacer en la web <http://www.arraio.eus/>.

#### **HAUR HEZKUNTZA / E. INFANTIL (HH 2 – LH 2)**

##### **HH 5. "TERAPIA CANINA"**

Un grupo de HH5 ha estado en el CENTRO DE DÍA participando en la "terapia canina". Hemos pasado una mañana alegre y divertida con los abuelos, abuelas y los perros Bixkor, Negu y Feel. [Aquí tenéis algunas fotos.](#)

##### **HH 3 – LH 2. EXPOSICIÓN DE MAQUETAS**

Seguimos trabajando en la transformación del espacio exterior. Durante toda la semana hemos expuesto maquetas que representan el espacio exterior soñado por los niños y niñas. ¡Atención, hoy es el último día para la visita! [Aquí tenéis algunas fotos.](#)

Besterik gabe, jaso gure agurrik beroena.

ZUZENDARITZA